

Aurten ere, eta ez da gutxi, joan zen urriaren 24 eta 27 artean, ACRECA XXXI. Mus Txapelketa jokatu zen Segovia hiriburuan.

Ilusio handiz eta nabarmentzeko gogo biziz joan ginen barneko Mus Txapelketako lehen 2 bikoteak, eta adore handiko hirugarren bikote bat, ordezkari gisa. Geure aurrean: 24 bikote 11 elkartetakoak.



Ordezkarien hasierako bileran jada ikusi genuen hura ez zela hasiberrientzat: bertaraturiko guztiak aurreko urteetako beteranoak ziren, eskarmentu handikoak. Bestalde, han ez zen ageri bizigarri gazterik.

Esan beharra dago Txapelketa honetan keinuak baimenduta daudela. Hasteko ofizialak, noski, baina azkenaldian baita ere onartzen dira, jokia eteten ez den bitartean, era guztietako gezurrezko iruzkinak (adibidez, dupleak ditut eta 31), eta horrela alde aurretik hitzarturiko gako pila dago, eta ondorioz partida hasten denean CESIDek baino hobeto dakite norberaren jokaldia eta lagunarena.

Zoritxarrez, edo ez, gure lurraldean ez da honelako jokorik erabiltzen, eta hasteko handicap garrantzitsu bat da guretzat. Gera bedi gure defentsan esanda, zeren eta, hainbeste nahaste-borrasterekin, ba, horixe, lortu zutela gu nahaspilatzea ia partida guztietan. Hori bai, erabateko laguntasun eta adiskidetasun giroan, eta ondorioz gure porrotak ez zitzaizkigun hain garratzak iruditu. Aurten ere zintzo bete dugu esaerak dioen hori, garrantzitsua ez dela irabaztea parte hartzea baizik. Hori esanda, gogoratu behar da, zirkunstantziak gorabehera, taldekako Txapelketa irabazi genuela iaz.

Honetaz zehaztu behar da aurreko urteetan, jokia keinu ofizialetara mugatzen zenean, desabantailaz jokatu arren, aldea ez zela hain ikaragarria izaten, eta arreta pixka bat jarrita, detektatu zitezkeela keinuetako batzuk eta aurkariaren jokaldia ezagutu. Gaur egun iruzkinak (ez ofizialak) erabat libre direnez, gutxiagotasuna nabaria da eta ia gaindiezina.

Dena den, zoriondu egin behar ditugu garaileak: CAMeko (Caja Mediterráneo) bikote bat, oso maila onean jokatu baitzuten, baina, jakina, kartak ez badituzu alde, deus egiterik ez.

Antolaketa aldetik, esan behar da egokia izan zela, ez zen arazo edo gorabeherarik izan, eta dena oso txukun eta giro onean garatu eta gauzatu zen.

Benetan alde ludiko-gastronomikoan nabarmendu ahal izan ginen. Paseo politak eman genituen Segovia hiriburuan; bestalde, Segovia, Burgos eta Arabako sukaldaritzak dastatu eta gozatu genituen, eta aitortu behar da oso goi-mailakoak izan zirela guztiak.



Espero dugu datorren urteko txapelketan (Asturiasen) parte hartzen dutenek aurten gertaturikoaren ordaina jasotzea, parte hartuz ez ezik, baita irabaziz ere. Horretarako, aurretik zer egin behar den gogoraziko dizuet: etxean Txapelketa jokatu eta lehenengo bi bikoteetako bat izan. Enegarren aldiz esango dut, aspergarri izateko arriskuaz, beharrezkoa dela gazteak animatzea kirol bikain honetan parte hartzera. Harrobia ziurtatu behar da, eta euskaldunen aspaldiko joko honen etorkizuna.